

BALEIKE

236. ZENBAKIA. EURO BAT
2014ko URRIA

www.baleike.com



**Olagarroarekin presta
daitezkeen errezetak
proposatu dizkigu
Ibon Uranga sukaldariak.**

DENA EZ DA **OLAGARRO ZOPA**



BOSCH
WAE24367EE
GARBIGAILUA

7 kg

1.200 rpm

399€
-125€



AEG
L73486FL
GARBIGAILUA

8 kg

1.400 rpm

499€
-125€
-50€



AEGk
abonatua

Etxetresna elektrikoen BERRITZE PLANA

729€
-105€



NO FROST

200 x 60 cm

INOX



BOSCH
KGN39XI31
HOZKAILUA

AEG
F55512W0
ONTZI
GARBIGAILUA



429€
-105€



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

BALEIKE 236

5

baleike +

ZUMAIARRAK LOIOLAKO HERRI HARRESIAN

A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta
Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietea, Izaskun Urbietea eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legia gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



10

publierreportajea
HARVEST AKADEMIA

13

erreportajea
OLAGARROAREKIN
EGINDAKO ERREZETAK

19

elkarrizketa
IURGI
IRURETAGOIENA

30

bertso sorta
MADDI GALLASTEGI

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



TOKIKOM



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diselnu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20
www.a3zumaia.com
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diselnu zerbitzuak



L I B R U R U D E N D A

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

Egin zaitez **BALEIKE**ko bazkide



ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

Egin zaitez **BALEIKE**ko bazkide




ANA
ETXeko ZAPATAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 ana@etxekozapatak@telefonica.net

Egin zaitez **BALEIKE**ko bazkide




D'Ana

Kantauri plaza, 6, behea tel. 943 117 406

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Erakusketa: Hego kalea, 4-5
Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
Arrikupe

Naupala, 7 - tel. 943 501 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/0
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa tel./faxa 943 148 306
bakun@bouskainet.net



Basadi albaitaritza

Ribaitario
Iñaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadialbaitaritza.com
www.basadialbaitaritza.com

Golbez: 11-13 / Arrabaloak: 16-19:30 / Astebeteen golbez eta larunbatuen bitartean
Lanaldietarako: 605 728 737 Etxez etxeko zerbitzua



BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943 86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943 86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com




Braky's
Okindegia • Katedegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

“MODU BAKETSUAN ERAKUTSI DUGU INJUSTIZIA BATEN KONTRA GAUDELA”

BALEIKE +



TESTUA: GORKA ZABALETA ARGAZKIAK: AXIER LOPEZ

Gazte independentisten mugimenduak desobedientziaren bidea hartu du epaiketa politikoak salatzeko. Loiolako basilikaren aurrean egindako herri harresia izan da azken ekintza. Han izan ziren lerro hauetan mintzo diren bederatzzi zumaierak.

Irailaren 22an hasi zen Madrilgo Auzitegi Nazionalen 28 gazteren kontrako epaiketa, Segiko kide izatea leporatuta –tarteetan da Beñat Lizeaga zumaiaarra–. Bezperan, agerraldi publikoa egin zuten auziperatuek Loiolako basilikaren aurrean, “auzi politikoen aurrean herritarrei konpromisoa” eskatzeko, eta 28 auzipetuetako bostek epaiketara ez joatea erabaki zutela iragartzeko. Iragarri bezala, biharamunean, epaiketan bost gazte falta zirela ikusi eta atxilotzeko agindua eman zuen Angela Murillo epaileak. Bostak Loiolan zeuden, baina 400 bat lagunek osatutako herri harresi batek babestuta. Basilika atarian osatu zuten harresia, eskaileretan elkarren ondoan eserita eta besoetatik helduta. Eta hala eutsi zioten elkarri, Ertzaintzak epailearen agindua bete eta indarrez bost lagunak atxilotzea lortu zuen arte. “Guk bagegien bostak eramango zituztela, baina helburua zen erakustea epaiketa bidegabekeria hutsa dela. Horregatik esan genuen guretzat garaipen bat izan zela”, azaldu du Aratz Zearretak.

Irailaren 22an Loiolako basilikako eskaileretan eseri ziren Aitor Ossa, Itxaso Urkidi, Borja Yeregi, Libe Osa, Ibane Astigarraga, Maddi Altuna, Aratz Zearreta, Alaitz Gorostiza eta Roman Etxaniz, beste hainbat zumaiaarrekin batera.

“Militantzia politikoagatik badaude auziperatuta, orduan ehunka lagunek egon beharko genuke kartzelan”

“Epaiketa politikoak bidegabekeria hutsa direla salatzeraz joan ziren. (Aitor Ossa): “Epaituei elkartasuna adierazi nahi nien, epaiketara ez agertzea erabaki zuten bost gazteei babesa eman; gizaritari adierazi nahi genion ez gaudela ados epaiketa hauekin”. (Maddi Altuna): “Epaiketa hauek legearen babesa edukiko dute, baina injustizia handiak dira. Ideia ximple horrek bultzatu gintuen Loiolako ekimenean parte hartzeraz”. (Aratz Zearreta): “Azken finean, militantzia politikoagatik badaude auziperatuta, orduan ehunka lagunek egon beharko genuke kartzelan. Nik Loiolako harresian ikusi nuen neure burua, leloarekin bat eginez: *Gu zuek gara, zuek gu zarete*”.

(Alaitz Gorostiza): “Beraien auziperatzea oso injustua da, beste gazte askok duten militantzia politikoa dute-lako, eta zergatik beraiek, denok berdinak bagara?”.

Gazte independentisten kontrako epaiketa politikoei erantzuteko bide berri hau 2013ko apirilean erabili zen lehen aldiz, Donostian –Ondarroan, Iruñean eta Loiolan egin da geroztik–; aurrekari zuzena da, baina, Batasunako kide Aurore Martinen atxiloteta saio ustela: 2011ko ekainaren 21ean Martin atxilotzen saiatu zen Frantziako Polizia, baina herritar multzo batek eragotzi egin zuen. (Aratz Zearreta): “Ideia hori



GORKA ZABALETA

▼ LOIOLAKO BASILIKA

Esanahiez betetako lekua aukeratu zuten herri harresia egiteko.



Gorputza tresna, elkartasuna bide, justizia helburu

Axier Lopez
ARGIAKO kazetaria



Aurore Martin zuberotarraren atxiloketa eta estradizioa galarazi zituen harresi herritarrak irekitako bideak, Donostiatik, Ondarroatik eta Iruñetik igarota, Azpeitian eman du urrats berria. Militantzia politikoa zigortzeko asmoa duten legeei aurre egiteko molde berria sortu dute herri harresiek. Gure herriak elkartasuna ADN-an txertatua duela zioen idazle ezagun hark, eta herri harresien dinamikak hala berretsi du berriz ere Loiolan.

Azpeitiko Loiolako basilikaren aurrean 400 bat pertsonako herri harresi koloretsuak babestu ditu Xabier Arina eta Imanol Salinas burlatarrak, Jazint Ramirez donostiarra, Igarki Robles gasteiztarra eta Irati Tobar portugaletetarra. Espainiako Auzitegi Nazionalak hauspoturiko epaiketa politikoen gupil eroaren baitan, 28 gazteren aurkako epaiketa arbuiatu eta Madrilera joateari uko egin zioten bost lagun hauek. Gainerakoak, Angela Murillo epailearen aurrean erakusten ari dira egunotan prozesu judizialarekiko beren kontrako jarrera.

Tartean da Beñat Lizeaga zumaiarra.

Atxiloketak gertatuko zirela jakina bazen ere, aurreko herri harresietan Ertzaintzak izandako jarrera oldarkorraz jakitun baziren ere, eta Loiolako desobedizientzaren artean herriko edo eskualdeko gertuko lagunik ez bazegoen ere, dozenaka zumaiarrek parte hartu zuten Askegunean, gorputza eta gogoia elkartasunari emateko prest. Eta horretan seguru aski zerikusi handia izango du hilabeteak lanean daramatzan Zumaiako Libre taldeak. Beñaten kasuaz gain, Inpernuperen epaiketa ere jorratu du dozena bat lagunek osatzen duten Libre lantaldeak. Ehundik gora herriko tabernekin batera ixteko agindua jaso du Inpernupetik Madrildik udan.

Legeak hala dioelako

Lehen, AEBetan afroamerikarrak autobusean ezin ziren zuri jarleketan eseri eta Espainiako Estatuan armadari oparitu behar genizkion gure bizitzaren 356 egun. Paper batean hala idatzita zegoelako. Gaur egun, Katalunian ezin dute haien etorkizunaz bozka eman eta Euskal Herrian ezkerreko baloreetan oinarritutako independentzia kalean aldarrikatzeak 8 urteko kartzela zigorra dakar. Politika negoziario bilakatu duten kasta politikoa hala idatzi duelako paper batean.

Giza eskubide unibertsalak murrizteko gutxiengo batek hartutako erabaki politikoa dira horiek. Aktibismo politikoa zigortzeko legeen aurka Euskal Herrian piztu den dinamika logika horren baitan ulertu behar dugu. Legea eta justizia, askotan, gauza bera ez direla erakusteko, desobedientzia publiko, masibo eta ez-bortitza da askok hautaturiko tresna. Desobedientzia zibilak gatazka bat azalratzea du helburu, bai-

na baita arazoa hori kudeatzeko boterearen zentzugabekeria eta, azken finean, zilegitasun eza ageria uztekoa ere. Euskal Herriko herri harresien dinamikak aukeratutako bidea horixe da, hain zuzen ere.

“Gu zuek gara, zuek gu zarete”

Herritarrak maila berean jartzea du oinarri desobedientziak. Hierarkia gabe, ideia baten inguruan ahalik eta jende gehien batzea. Pentsamolde hori “Gu zuek gara, zuek gu zarete” leloaren baitan gorputzu zen Loiolako Askegunean. Antolatzaileek adierazi zuten gisan: “Ehunka pertsonen artean, auzolanean, hitzaldiak eta kultur emanaldiak anto-

latu genituen, karpak altxatu, lo egitekoak atondu eta otorduak prestatu. Konplizitate ideologikotik harago, auzipetuen eta herritarren arteko elkarlanean bat eginik, maitasuna eta borrokarako grina biderkatuz”. Nekez uler daiteke bestela, hainbeste lagunek isunak jaso, jipoituak edo atxilotuak izateko beldurra gainditu, eta aurretik ezezagunak ziren gazte batzuen defentsan arrisku horiek hartzeko prest azaltzea.

Euskal Herrian “elkarbizitzaz eta normalizazio politikoaz” hitz egiten den garaiotan, ageriko oztopo gisa azaltzen zaizkigu hau zein hurrengo epaiketa politikoa. Baita maila pertsonal zein kolektiboan hausnartzeko moduko galdera batzuk mahaigaineratu ere:

- ✓ Gure herrian bakea egonkortu nahi duen gehiengo zabalaren parte garenok, zer egin dezakegu sendatu gabeko zauri hauen aurrean?
- ✓ Instituzioen eta alderdi politikoen mugak agerian geratu diren garaiotan, zein leku har dezake desobedientziak egungo Euskal Herrian?
- ✓ Auziperatuak babesten, 400 beharrean, 2.000 edo 5.000 pertsona egon izan balira, zer gertatuko zatekeen?

Zalantzak argitzeko aukerak ez dira urriak izango. Tamalez. Izan ere, 200 bat euskal herritar daude epaituak izateko zain, Eleak mugimenduak emandako datuen arabera. 28 gazteren kasuan bezala, askorena torturapean egindako deklarazioak dira inputatzeko duten frogak nagusia. Herritarren gehiengoak gainditu nahi duen iraganeko egoera politikoen alde mingarria erakusten dute epaiketa politikoei. Eta herritarren desobedientzia masiboa, demokraziaren hutsune garrantzitsuak agerian husteko tresna gisa, giltzarria izango da, lehen bezala, gure herriaren etorkizuneari.

Auzipetuak babesten, 400 beharrean, 5.000 izan balira, zer gertatuko zatekeen?

garatuz sortu dira askeguneak eta herri harresiak. Jendea kokoteraino dago. Beste garai batzuk dira, baina Estatuak formula zaharkituak erabiltzen jarraitzen du. Horren aurrean zer aukera dago? Desobedientzia”. (Maddi Altuna): “Herri harresiak aukera ematen du gutako bakoitzak oso modu zuzenean parte hartzeko, bata bestearen ondoan jarrita. Herriar bakoitzak osatutako kolektiboa da hor irudikatzen dena. Jendeak parte hartzen du, bere ekarpenak eragin oso zuzena duela ikus dezakeelako”.

Duela 25 urte mugimendu antimilitaristak desobedientzia ekintza baketsuak eta erresistentzia pasiboa erabili zituen derrigorrezko soldadutzaren aurka borrokatu eta legea aldarazteko —beste hamaika adibide ere eman daitezke—. Bide horrek gizartearen aurrean duen zilegitasunaz eta boterari eragiten dion deserosotasunaz jabetuta daude gazteak. (Aitor Ossa): “Dudarik gabe. Agintean daudenek ez dakit zer pentsatuko duten, baina gizarteak ikusten duena da gazte batzuk geldirik, ezer egin gabe, eta Ertzaintza haiek egurtzen.

Irudi horrek zilegitasuna kentzen die, eta espero dut aldaketaren bat eragitea, indarkeria hain erraz erabil ez dezaten”. (Borja Yeregi): “Guk modu baketsuan erakutsi dugu injustizia baten kontra gaudela, eta beraiek betiko formula zaharrek erantzuten dute. Jendearengana iristeko beste zilegitasun bat lortzen da horrela”. (Maddi Altuna): “Irudiak oso ondo azaltzen zuen zer gertatu zen. Alde batetik, Ertzaintza Auzitegi Nazionalaren aginduz gazte batzuk indarrez eramaten, jipoika; bestetik, herritar multzo bat, maskara laranjekin, koloretako pelukak jantzita, denak geldirik, inolako indarkeriarik erakutsi gabe”. (Aratz Zearreta): “Parte hartzeko ideiak garbi eduki behar dira, ez delako batere samurra, kolpeak jasotzen ari zarenean, jarrerari eustea. Garbi eduki behar da zein den gure hautua. Gure gorputzarekin, bakoitza adreilu bat izanik, eutsi. Jakinda, hala ere, atxilotu nahi dituzten bost gazteak eraman egingo dituztela”.

Emozioen zurrumbiloa

Harresian egindako ordu haiek nola gogoratzen dituzue?

(Borja Yeregi): “Oso emotiboa izan zen. Kantuan egin genuen asko, eta ikusi genituenean Ertzaintzaren furgonetak gerturatzen, orduan eta ozenago hasi ginen kantuan. Zain. Bagenekien zer gertatuko zen. Bagenekien egurra jasoko genuela, baina hantxe egon ginen, beste bost gazte haiengatik”. Libe Osa: “Niretzat lehen aldia zen. Loiolara iritsi eta orduantxe batekin esan zuen Ertzaintza bidean zetorrela. Derrreperenteko kontua izan zen.”. (Ibane Astigarraga): “Eskola-



“Gizarteak ikusten duena da gazte batzuk geldirik, ezer egin gabe, eta Ertzaintza haiek egurtzen”

tik iritsi ginen eta segituan hasi zen dena. Nik behintzat ez nuen espero hain azkar izatea, etxean afaltzea zen nire asmoa...”. (Alaitz Gorostiza): “Ni hesiaren kanpoan gelditu nintzen, eta uste dut okerrago izan zela, asko sufritu nuen gertatzen ari zena ikusten”. (Borja Yeregi): “Irudietan ikusten da ertzainek nola atera zuten jendea, baina harresitik detaile guztiak ikusten dituzu, egiten dituzten zikinkeria guztiak, ukalondoa sartu, porrarekin jo... Eta segidan pentsatzen duzu hurrengoa zeu zarela”. (Maddi Altuna): “Oso emozio ezberdinez jositako momentua izan zen, oso gorabeheratsua. Beldurra pasatzen duzu, sentsazioa daukazulako edozein momentuan zerbait larria egin diezaioketela norbaiti. Baina kriston indarra sentitzen duzu kolektibo baten parte sentitzen zarenean”. (Alaitz Gorostiza): “Oso gogorra izan zen, baina oso polita. Bete egiten zaitu barrutik”. (Roman Etxaniz): “Ikustea 500 edo 600 lagun, bata besteari helduta, erresistentzia pasibo bat egiteko prest, horrek emozio handia sortzen du”. (Maddi Altuna): “Hor zauden momentuan zuk badakizu defenditzen ari zarena justua dela, eta konbentzimendua hain da handia, kolpatuko zaituztela jakin arren eutsi egiten diozu. Hori da honen indarra. Beraiek legearen babesa dute, baina justiziaren indarra guk daukagu”.

Aurrera begira, desobedientziaren bidetik jarraitzea al da zuek planteatzeko duzun aukera?

(Aratz Zearreta): “Desobedientzia bide berriak zabaldu behar dira, garbi dagoelako alde bakarreko bidean goazela. Herri harresietan sentsazioa da irabazi egin dugula, gero eta gehiago garelako”. (Maddi Altuna): “Badakigu ekintza jakin batekin ez dela epaiketa geldituko, baina helburua da eragin bat lortzea”. (Aitor Ossa): “Eta aurrera begira zilegitasuna lortzea gizartearen aurrean”. (Roman Etxaniz): “Desobedientzia jarrera eraman behar da beste maila batzuetara, herri mailako desobedientziara”. ■

BALEIKE 2014 URRIA 9



H A R V E S T A K A D E M I A 25 URTEZ INGELESA IRAKASTEN

1989AN JARRI ZUEN MARTXAN ITZIAR ARTETXE ZARAUZTARRAK HARVEST AKADEMIA ZUMAIAN. HASIERA GOGORRA IZAN BAZEN ERE, 25 URTE GEROAGO KLASEAK EMATEN JARRAITZEN DUTE ADIN GUZTIETAKO PERTSONEI. IKASTURTE HONETAN ERE EHUN IKASLETIK GORA DAUZKATE, ETA HERRITARREN FIDELTASUNA ESKERTZEKO ASMOZ, URTEURREN BEREZIA OSPATUKO DUTE. BIDE BATEZ, LANTALDEA OSATZEN DUTEN AITZIBER ETXABERI ETA IRENE MANTEROLARI ERE ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIE.

HISTORIA

“Orain dela 25 urte ere ingelesa ikasteko eskaera handia zegoen”, aipatu du Itziarrek. Aurretik, Zarauzko akademia batean egin zuen lan, baina beste lankide batekin akademia propioa zabaltzea pentsatu zuen. “Zumaian jartzea pentsatu genuen, Zarautzen nahiko konpetentzia bazegoelako”. Hasiera gogorra izan zela kontatu du Itziarrek. “Nire lankidea eta ni ez ginen zumaiaarrak, inork ez gintuen ezagutzen, eta horrek, noski, hasieran oztopoak eragiten dizkizu”.





METODO HOBEAK

Gaur egun ikasketa prozesua hobetu egin da. “Lehenago liburuetan gramatika asko zegoen, eta zerbait berezia lortzeko, bilatzen jardun behar zen. Klaseak prestatzea zailagoa eta neketsuagoa zen. Orain, aldiz, metodoak material guztiarekin etortzen dira”. Izan ere, materialen inguruan aldaketa handia egon da azken urteotan. “Berrikuntza horiei esker klaseak dibertigarriagoak egin ditzakegu, eta hori, umeei, batik bat, asko eskertzen dute”. Umeentzako material polita dago: koloreak, pegatinak... Erakargarria da. Bideoak, kantak, jokoak, pelikulak... denetarik erabiltzen dute.

ESKAITZA ZABALA

Akademia astelehenetik ostiralera egoten da zabalik arratsaldean. Orduetgia urtero aldatu egiten dute. “Umeen ordutegiaren arabera moldatzen ditugu klaseak. Beraien beharretara egokitzen gara, azkenean eskolaz kanpoko aktibitate asko dituzte eta”. Adin guztietako pertsonaiei ematen dizkie klaseak. “Gazteenak Lehen Hezkuntzako bigarren mailakoak dira, eta hortik hasita, adin guztietako jende helduari irakasten diegu”. Txikiak astean bi orduz joaten dira, eta zaharragoak, berriz, hiru orduz.

CAMBRIDGE AZTERKETEN PRESTAKUNTZA

“Helduen helburua, gehienbat, tituluak ateratzea da”, adierazi du Itziarrek. Umeen kasuan ere gero eta gehiago arduratzen dira tituluren bat ateratzen. “Gurasoek ikusten dute premia dagoela”. Akademian Cambridgeko Azterketa Ofizialetako prestakuntza eskaintzen da: PET, KET, FIRST eta ADVANCE tituluak, hain zuzen ere. Advanceko klaseak natibo batek ematen ditu, gainera. “Emaitza onak lortzen ditugu, joaten diren % 90ek baino gehiago gaitzen dute”.

ATZERRIRAKO PROGRAMAK

Bi motatako atzerrirako programak dituzte. “Ikasleak, nahi duen enfokearen arabera, bat edo beste aukera dezake”. Alde batetik, Donostiako agentzia batek eskaintzen duen programazioa dago. “Kasu horretan, guk bitartekaritza lana egiten dugu, informazioa banatu eta asesore lana egiten dugu. Programa zabalak izaten dituzte, eta bakoitzak bere nahiaren arabera bat edo beste aukeratzen du”.

Beste alde batetik, soilik beraiek eskaintzen duten programa berezia dago. “Laguna dugun familia irlandar baten etxera joaten dira”. Orain dela hiru bat urte hasi ziren ekintza horrekin eta esperientzia ona izan dute. “Programa berezia da, familia irlandar batera joaten dira eta egunero beraiekin egoten dira, familiakoak balira bezala. Ez dira eskolara joaten, familiarekin egotea eta ikastea da interesgarria hemen”.

ZOZKETA BEREZIA

Mende laurden betetzeak ospakizunetako merezimendua ematen duenez, ikasleei zerbait berezia eskaintzea pentsatu dute. Horrela, aurten eskolan dabilzanen artean hilero zozketa bat egingo dute, eta tokatzen zaionak hilabete hori dohainik izango du. “25 urte hauetan gurekin egon direla eskertzeko modua da, bestela ez ginelako hemen egongo”. Horretaz gain, matrikulazioa ere dohainik da.

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

Egin zaitez
BALEIKEKO
bazkide



Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



ERNETO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA



Orange

Portatilak eta mugikorrek konpontzeko zerbitzua
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395



ERROTA
OPIL-OKINDEGIA
SANTIXO AUZOA, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errot@errot-okindegia.com

FLYSCH UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)
Tel: 943 11 63 97

Galdona



Mendiara mainela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330



Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Txomin Agirre kala Tel. 943862181

GLENCOE

INGELES AKADEMIA

4 PERTSONAKO
TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheá
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



GOIKO TABERNA
Erribera, 9 tel. 943 861 391

Egin zaitez
BALEIKEKO
bazkide



Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, beheá
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

Olagarroa sukaldean nola presta daiteke? Galdera hori zumaia bati egiten bazaio, berehala erantzungo du: zopan edo patatekin. Piperrauts ukituak dituen galiziar erara prestatutako olagarroa ere bururatuko zaio. Baina beste eraren batean ere prestatu al daiteke? Ibon Uranga sukaldaria baiezkotan da, eta halaxe erakutsi zuen azken Olarro Egunean eskaini zuen sukaldaritzaren erakustaldian.

OLAGARROA SUKALDEAN

ERREPORTAJEA



TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Irailaren 20an izan zen Olarro Egunaren bezperan, olagarroa prestatzeko beste era erraz eta merke batzuk badaudela erakutsi zuen Ibon Urangak Kofradiako plazan egindako erakustaldian. Arroz krematsua, fideoak txapiroki tintarekin, babarrunak olagarroarekin eta olagarro broxetak tenpura prestatu zituen hara joan zirenen aurrean. *Baleikek* hala eskatuta, saioa kameran aurrean errepikatu du Ibonek. Inda-Mendi elkartearen jarri dugu hitzordua eta Joxe Mari Elustondo lagun eta Olarro Egunaren antolaketa taldeko kidearekin agertu da. Osagaiak mahai gainean jarri eta lanean hasi dira.

Sukaldaritzako irakaslea da Ibon eta esan daiteke bizitza osoa daramala sukalde munduan. “Zazpi urte nituen aitak [Etxe Ona] jatetxea zabaldu zuenean. 14 urterekin joan nintzen Madrilera sukaldaritzara ikastera eta orain 50 urte ditut. Pentsa”. Jatetxe bateko sukaldari baino nahiago izan zuen irakasle bihurtu. Madrilen

“Olagarro erroak erabiltzen ditugu. Baina zer egin buruarekin? Erraza: txiki-txiki egin eta enpanadillak edo hanburgesak presta daitezke”



bertain atera zituen oposaketak eta Hezkuntza Ministerioak Llanes (Asturias) herrira bidali zuen. Han zortzi urte igaro zituen. “Ondoren, beste bost urte egin nituen Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa) eta beste zortzi daramatzat orain Leioan, EHUKo sukaldaritzara eskolan. Munduko gizona naiz!”, dio irribarretsu. Sukaldaritzarekin zerikusia daukaten hainbat alor landu ditu denboraldi horretan. “[Leioan] Lehen platerak erakusten hasi nintzen, eta hurrengo urteetan bigarrengo platerekin eta postreekin jarraitu nuen. Iaz erosketen administrazioa eman nuen eta aurten berriro tailerrera joan naiz, pastelgintzara”. *Flysch* izeneko pastel bat ia eginda duela argitu digu. “Forma eta kolorea, grisa, lortu ditut, baina gozo puntua hartu behar dut. Eskolak ikertzeko aukera hori ematen du. Beste toki batzuetan ezinezkoa izango litzateke”.

Olarro Egunaren sorreran izan zen Ibon, Joxe Mari, Agustin Larrañaga eta Inaxio Olideneekin batera. Gaur egun, lehen biek jarraitzen dute antolaketa batzordean. Egunak duen arrakastarekin ez konformatzea eta berritzen joatea da antolatzaileek beren buruari jarritako erronka. “Berrikuntzak sartu behar ditugu; bestela, Olarro Egunak behera egingo du”, zioen Joxe Mari Egunaren aurretik egindako elkarrizketa batean. Berrikuntza behar horren baitan kokatu dute Kofradiako erakustaldia.

“Hemen olagarroa patatekin eta olagarro zopa ditugu. Eta kito. Besterik ez da”, dio tipula moztetari ekiterakoan. Llanesen lanean zela ezagutu zuen Ibonek asturiarrek osagaiak nahasi edo gehitzeko duten ohitura. “Han beste ohitura batzuk dituzte, baina ez olagarroarekin bakarrik. Adibidez, hemen babarrunak txorizoarekin edo odolkiarekin jaten ditugu; han, txerri hankak botatzen dizkiete, eta tripakiak, masailak, perretxikoak... Edozer gauzarekin jaten dituzte babarrunak. Eta beste osagai bat olagarroa da. Harrigarria da”.

Olagarro egosiaren erroak patatekin edo galiziar era jateko ohitura dago hemen; lehortutako olagarroa, aldiz, zopan. Munduko beste leku batzuetan ere olagarro lehorra jateko ohitura badagoela dio Ibonek. “Asturiasen ez dago olagarro lehorra jateko ohiturarik, baina pixka bat ikertzen arituta, jakin nuen Dakarren (Senegal) pila bat lehortzen dutela olagarroa. Parrillan etzanda eguzkitan jartzen dute, eta hainbestekoa da beroa, berehala lehortzen da. Grezian ere lehortu egiten dute eta gero parrillan erreta jan. Nik ez du dut sekula probatu, olagarro lehorra gehiegi ez zaidalako gustatzen, baina hori zeinek jan dezake?”, galdetu dio bere buruari.

Arroza, fideoak, babarrunak eta broxetak prestatuko dizkigu, baina olagarroa prestatzeko beste hainbat era badaudela azaldu du. “Olagarroaren erroak erabiliko ditugu hainbat plater prestatzeko. Baina zer egin buruarekin? Erraza: txiki-txiki egin eta enpanadillak edo hanburgesak presta daitezke. Mila gauza egin daitezke olagarroarekin”.

OLAGARROA NOLA EGOSI

Gatzik, oliorik, tipularik edo beste osagairik ez duen uretan egosi behar da. Oso garrantzitsua da gatzik ez jartzea. Zergatik? Gatza jarriko bagenio, murriztu egingo litzatekeelako. Olagarroa hirutan sartu eta aterako dugu irakiten dagoen uretan. Horrela, nerbioak bigunduko zaizkio eta azala osorik mantenduko da. Azala osorik izatea garrantzitsua da, presentzia aldetik. Gero, uretan bertan utziko dugu egosten. 1,2 kilo inguruko olagarroak ordu erdi inguru behar du egosteko. Bertako olagarroak kolore eta zapore handia ematen dio gero platerak prestatzeko erabiliko dugun egosteko urari.



FIDEOAK OLAGARROA ETA TXIPIROI TINTAREKIN

Osagaiak: fideo lodi lehorrak, egositako olagarro erroak, txipiroi tinta, tipula, piper gorria eta berdea, baratxuria, oliba olioia eta olagarroa egosteko erabilitako ura.

Paella bat bezala prestatzen da, baina fideoekin. Lehenbizi, barazkiak puska txikitik moztuko ditugu. Oliba olioia jarriko dugu berotzen. Tipularekin hasiko gara, gogorrena delako. Tipula biguntzen hasten denean, piper gorria eta berdea botako ditugu, eta azkena baratxuria. Barazkiak bigunduta daudenean, fideoak jarriko ditugu. Plater hau edozein pastarekin egin daiteke, baina betiere pasta lehorra izan behar du. Osagaiak oliotan egingo ditugu eta ondoren olagarroa egosten erabilitako urarekin bustiko dugu. Osagaiak eragiten joango gara eta ura agortzen doan heinean ur gehiago botako diogu. Ondoren, txipiroi tinta botako diogu. Erositako tinta erabiliko dugu hemen. Kontuan hartu behar da tinta gordina ez dela jan behar; aurrez egosi egin behar da. Beltza geratzeko adina tinta botako diogu. Gatza hasieran edo bukaeran bota daiteke; pastak bi erataria onartzen du. Pastak 15 minutu behar izaten ditu egosteko. Behin egosita dagoenean, olagarro erroak botako dizkiogu. Egositako olagarroa denez, nahikoa da fideoetan sartzea berotzeko. Lehorragoa nahi dugun, krematsuagoa, hori norberak erabakiko du. Amaitzeko, apaintzeko, erro gehiago jarriko dizkiogu gainean.





ARROZ KREMATSUA OLAGARROAREKIN

Osagaiak: arroza, egositako olagarro erroak, tipula, kalabazina, piper gorria eta berdea, baratxuria, koloratzailea, oliba olioia eta olagarroa egosteko erabilitako ura.

Barazkiak jarriko ditugu oliba oliotan, fideoekin erabilitako ordena berean. Hemen gogokoenak ditugun barazkiak erabili daitezke: kalabazina, perretxikoak, etab. Behin bigunduta daudenean, arroza gehituko diogu.

Arroz mota desberdinak erabili daitezke, baina guk arroz biribilarekin prestatuko dugu. Normalean arroza saldaren ondoren jartzen dugu, baina krematsua egin nahi dugunez, risotto baten antzekoa, aurretik arroza jarriko dugu eta ondoren olagarroa egosteko erabilitako ura gehitzen joango gara eta osagaiei eragiten.

Ur honek emango dio platerari olagarroaren zaporea. Arrozak botatzen duen almidoiak loditzen du jakia. Pixkanaka ur gehiago botako diogu eta eragiten jarraituko dugu nahi dugun kremositate maila lortu arte. Arrozari koloratzailea eta gatza botako dizkiogu. Risottoa egiterakoan, normalean gazta eta mantekila botatzen dizkiogu; hemen, berriz, ez zaio ezer bota behar. Puntua zein den? Bakoitzak nahi duena. Amaieran, minutu gutxiren faltan, olagarro erroak gehituko dizkiogu.

BROXETAK KURRUSKARIAK PATATA PUREAREN GAINEAN

Osagaiak: egositako olagarro erroak, patata purea, ogi arrailatua, intxaurreak, pinoiak, eguzki lore eta oliba olioak, piperrautsa.

Intxaurreak eta pinoiak xehatu eta ogi arrailatuarekin nahastuko ditugu.

Xehatutako kiko edo frijitutako arto ale handiak ere erabil daitezke. Olagarro erroak txotxetan jarri eta ogi arrailatuarekin prestatutako nahasketatik pasa ondoren, eguzki lore olioarekin frijituko ditugu.

Kanpoaldea kurruskatzeko adina denboran frijituko ditugu. Bitartean,

patata purea prestatuko dugu oliba olio pixka batekin eta plater zapal batean jarriko dugu oinarri gisa, eta haren gainean jarriko ditugu broxetak, zutik. Emaitza piperrautsarekin hautseztatuko dugu. Galiziar erara egindako olagarroaren zaporea izango du, osagaiak berberak dira eta.



Gure-Txokoa
 aberna



Upela plaza, 4
 20750 Zumaiá
 Tel.: 943 86 09 70

Harvest
 English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bisá tel. 943 143 334

API

Ibaigain
 inmobiliaria

Txomin Agiré 4, beheá
 elena@ricardoazcue.com
 tel. 615 793 406 / 943 862 651
 fax: 943 862 748

www.ibaigain.com

ilarzi



Alai auzategia, 2
 Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo
 Optika

Kantauri plaza, 8. Zumaiá. Tel. 943 86 04 86
 Nagusia, 53. Azkoitia. Tel. 943 85 19 84

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
 OPARIÁK

Angelin Soratu, 2
 20750 ZUMAIÁ
 (Gipuzkoa)
 tel. 943 143 689
 fax: 943 430 637

Itzurun, S.L.
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armaru enpokatutak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 beheá
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI
 ZUMAIÁ



943 862 083

JUARISTI
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
 Eguneko menua
 Jangela klimatizatua


Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

Egin zaitetz
BALEIKEKO
 bazkide



KABI Pakete Etxezarrabi, 16
 943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
 Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

Upela plaza, 8
 tel. 943 862 517



kalari

PAPER diseinu grafikoa

Roberto Gutierrez
 696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

Kresala
 Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869

“Iruditzen zait 50 urte pasa direla seniorretan debuta egin nuenetik”

Hogei urte biribil burutu ditu duela hilabete pasatxo aurrenekoz traineru estropadetan aritu zenetik. Etxeko taldean izan zen hura, “nire taldean, Zumaian”, eta harrezkero Urdaibain, Orion, Castron eta Portugaleten ibili da lurgi Iruretagoiena (Donibane Lohizune, 1975). Arraun ibilbidea bukatu duen edo ez argitu gabe du oraindik, baina aukera ematen dute 20 urte horiek egindakoari begirada emateko.

TESTUA: AITOR MANTEROLA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

10-11 urte zituenean hasi zen zenean eta aurten bertan bete ditu hogei urte traineru munduan. Zumaian hasi eta Kantauriko hainbat klubetan aritu da. Arroa Goian duen etxean jarri dugu hitzordua urte hauek guztietako istorioak eta bizipenak jasotzeko.

Zenbatgarren denboraldia izan duzu hau traineruetan?

Hogeigarrena.

Biribil-biribila zenbakia...

Bai. Ez ditut denak segidan egin, 2005ean eta 2008an ez nuelako arraun egin. Lanagatik utzi nuen lehendabizikoan, eta bigarrengoan, familia izan genuelako.

Hogei urte azkar pasatu zaizkizu?

Ez zara konturatzen, baina argazki zaharrei begiratzen diedanean, iruditzen zait 50 urte joan direla.

Bizitza erdia ia-ia traineruan sartuta...

Bizitza erdia, bai.

Zumaian egin zenuen debuta traineruan. Zenbat urte egin zenituen etxeko klubean?

1994an hasi eta 2002ra arte.

Zer daukazu gordeta buruan Zumaiako urte haietatik?

Aurreneko urteak asko markatzen du. Zazpi debutari ginen urte hartan, eta besterik ez zegoenez, traineruan sartu gintuzten. Denboraldi oso polita egin genuen.

Traineruko zure aurreneko estropadaz gogoratzen?

Loiolan izan zela uste dut.

Zergatik izan zen urte polita aurreneko hura?

Emaitzak onak izan ziren, eta beste gauza askogatik ere berezia izan zen. Gogoan daukat Kontxako Banderan sartzeko aukeekin ikusi genuela geure burua. Minutura geunden onenetatik, eta garai hartan, tarte hura ez zen asko, Kontxan sartzeko muga hor ibiltzen zen; orain, berriz, minutura geratuz gero

“1999ra arteko urteak ez ziren oso gozoak izan, lanak izaten genituelako trainerua uretan izateko ere. Baina beste aldetik, urte ederrak izan ziren, lagun giro jatorrean ibiltzen ginelako!”

aurrenekoetatik, urruti geratzen zara. Ligarik ez zegoen orduan, eta antolatzaileek gonbidatzen zituztenak joaten ziren estropadetara. Santurtziko estropada oso garrantzitsua zen orduan, eta ohorezko txandan sartu ginen. Kontxa genuen buruan, baina kale egin genuen sailkatze estropadan.

Urruti geratu zineten?

Baietz uste dut. Debutari asko ginen, eta oso urduri geunden. Sailkatze estropadan dena ondo egin behar izaten da. Osteguneko izaten da zailena Kontxan, bi igandeak ere bai, baina zailena sailkatzekoa.

Nolakoak izan ziren Zumaian egindako beste denboraldiak?

1999ra arteko urteak ez ziren oso gozoak izan, lanak izaten genituelako trainerua uretan izateko ere. Gogoan daukat behin, 1997an edo izango zen, eta gu Lekeitioko hondartzan zain, hamalagarren arraunlaria noiz helduko lanetik bertara; bitartean, beste traineruak ordurako

beroketarekin hasita zeuden. Baina beste alde batetik, urte ederrak izan ziren, lagun giro jatorrean ibiltzen ginelako. Ez zaizkit inoiz ahaztuko urte haiek.

Zuek jarraitu izan ez bazenute urte haietan, *Telmo Deunik ez zen egongo orain, agian...*

Ez diot horri begiratzen. Azken batean, nik neuregatik egin nuen, eta arrauna gustatzen zait, eta aurrera segitu nuen. Nekagarria zen, bai, baina gustukoa nuenez han ibiltzea...

Zein izan zen Zumaiako urte haietako lorpenik handiena?

2001ean Kontxan aritzea polita izan zen. Getariarekin batera atera genuen trainerua urte hartan. 1995ean, Errioxako bandera irabaztea ere polita izan zen. Hango urtegi batean jokatu zen aurrenekoa izan zen 1994an beste bat ere atera genuen, Colindresen.

Nolako giroa izaten zen Colindres eta antzeko lekue-tan?

Puff... Bandera jasotzera eszenategi batera igo behar zen, eta bueltan-bueltan Espainiako banderaz josia zegoen. Joseba Aristi zen patroia, eta bera ez zihoala han gora; eta guk baietz; berarekin igotzeko berak... Azkenean, igo zen. Bandera barragarria zen. Eskoba kirten bat, eta bandera zeloarekin itsatsita. Eta bandera tenpera margoekin marraztua.

Zumaia garai hartan trainerilletan ondo ibili zen, ezta?

Bai. 2000an Gipuzkoako Txapelketa irabazi genuen, hamahiru urtez irabazi gabe egon eta gero. 2001an ere irabazi genuen.

Eta 2002an, istilua eta xextra trainerilletan...

Gu aurreneko kalean ginen, eta irtetera gindoazela, motordun ontzi bat pasatu zen guretik gertu, eta olatua atera zuen. Epailak ez gintuen ikusten, eta guk eskua altxatu ge-



nuen, irteera ez emateko eskatuz. Baina irteera eman zuen, eta gu irten ez. Oihuka hasi ginen, eta beste ontziak ere geratu egin ziren. Epaileak esan zigun kaleratuta geundela, eta trabeska jarri ginen protestatzeko. Luxia etorri zen, eta esan zigun bera jarriko zela trabeska eremuaren erdian, kentzeko gu handik. Ez genuen ezer lortu... Bueno, bai, komunikabideetan gure izena asko zabaldu zen.

Zumaiako aroa bukatu, eta 2002ko udazkenean, Urdaibaira joan zinen. Garai hartan hasi ziren arraunlariak batetik bestera mugitzen. Aitzindariak izan zineten.

Joxean Olaskoaga *Aizperrok* deitu zidan, eta hura 2001ean hasi zen Urdaibain. Aurretik, Zumaiaetik bertatik, Iñigo Etxabe atera zen, Ondarroara.

Zu Zumaiaetik ateratzea nola hartu zuen orduan Klubean zegoen jendeak?

Normala den bezala, gaizki. Baina gauza bat da gaizki hartzea, eta bestea errespetatzea. Azken batean, bakoitzak ezberdin pentsatzen dugu. Zumaian egon nintzen urte guztietan ez nuen batere aitzakiarik jarri arraunean segitzeko; galdetu beharrik ez zuten niri segi behar nuen edo ez segitzeko. Urte hartan esan nien lagatzera nindoala, baina inork ez zidan sinetsi. Horren ondoren, Aizperrok deitu zidan, eta beste zerbait piztu zitzaidan barruan: Zumaiaetik kanpoko arrauna ezagutzeko gogoia.

Espero zenuen kanpoko eskaintzaren bat jasotzea?

Ezta inondik ere! Eta gutxia go Aizperrok esan zidana esatea.

Zer esan zizun, bada?

Ezagutzen ninduelako eramatzen ninduela esan zidan. Tratua geneukan berarekin, eta esan zidan ezagun bat behar zuela alboan, eta ez zuela inork ezagutzen.

Zer moduzko esperientzia izan zen Bermeokoa?

Ona. Urtebete bakarrik egin nuen, lanarekin uztartzea ia ezinezkoa nuelako. Erreleboan egiten nuen lan, goizez, arratsaldez eta gauzez. Oso ezberdin sentitzen nintzen halako talde batean. Bidaiak izaten ziren gogorak, batez ere gauzez lan egin behar izaten nuenean. Lehenago joaten nintzen bakarrik [bestela, hiru joaten ziren auto berean: Aizperro bera eta Xanti Zabaleta], eta lehenago alde egiten nuen Bermeotik, lanera garaiz heltzeko, eta bidean ogitartekoa edo fruta janda bakarrik. Lanean gaizki pasatzen nuen, makinaren aurrean lo hartuta ere geratu nintzen behin baino gehiagotan.

Damutu egin zitzaizun Bermeora joatea?

Damutu ez, baina asko pentsatu bai. Klubeko medikuak esaten zidan ez zekiela nola irauten nuen tente ere! Esaten nion geldirik egoten ez nintzelako irauten nuela... Geratuz gero, akabo. Halako nekeak adin batekin jasaten dira; orain ez nuke jasango.

Hura izan zenuen aurreneko urtea arraun egiteagatik kobratzen?

Kobratzen bai, baina badakit Zumaian geratu izan banintz etekin handiagoa aterako nuela. Huskeria zen diru aldetik Urdaibaikoa, eta ez nintzen diruagatik joan.

Orion ikusi zintugun 2004ko denboraldian.

Xabier Bereziartua *Txato* zegoen han, Zumaian elkarrekin ibiliak ginen. Jokin Amilibia eta Jon Salsamendi ziren entrenatzaileak. Orion ikustea espero ez nuen zerbait ikusi nuen. Buruan nuena zen arrauneko munduan zebilen kontua: Orio zela futboleko Real Madril. Zumaian gauza onik ez zen Orioren inguruan. Harritu ninduen izan zen zer ondo zegoen antolatua kluba, eta han arraunlariak esandakoa zintzo betetzen zutela. Hau esan egiteko eta egin egiten zuten. Asko eskatzen ziguten han, eta Oriorentzat ez irabaztea porrota zen. Garrantzi handia ematen zioten arraunlariaren izaerari; ez zen bakarrik fisikoa eta teknika. Berezko selekzioa egiten zen arraunlariak aukeratzeko: presioa jasateko gai ez zena kanpoan geratzen zen.

Beste mundu bat ezagutu zenuen?

Bai. Gaur egun arrauna denaren antzekoa zen Orio hura. Adibidez, Orion ohikoa zen ergometroan entrenatzea, baina beste lekuetan apenas erabiltzen zen.

Orio beti koska bat aurrerago?

Denean ez. Hango gimnasioaren aldean ona zen Zumaikoa, esaterako. Edozein eratara jartzen zituzten Orion pisuak, arraunlariak indarra lantzeko. Zumaiaiko makinak hobeak ziren. Pabilioi handi bat zen Oriokoa, eta neguan izoztu egiten ginen.

Hurrengo urtean, 2005ean, utzi egin zenuela esan duzu lehen. Zer dela eta?

Lanarekin ezin uztartua ibiltzen nintzelako.

2006an Oriora joan zinen berriz

Bai, hori da. Aizperro zen entrenatzailea, eta deitu egin zi-



“Klubeko medikuak esaten zidan ez zekiela nola irauten nuen tente ere! Esaten nion geldirik egoten ez nintzelako irauten nuela...”



Kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur



MAITE
ILEPAINDEGIA

Amaia plaza, 2 tel. 943 143 275



Maluta
jatetxea + taberna

oilasko erreka • kaxuelitak • ogitarteak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



Nikol
taberna

amaia plaza 943561516



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indurtegia, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

836 887 812 (Zumaia)
809 834 438 (Itziar-Deba)
www.carroceriasnoia.com

MARGARI fruta-denda

Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 891



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

Egin zaitetz
BALEIKEko
bazkide



GERRAKO BOST
DESAGERTU
AURRITU DITZUZTE

ETXEGINTZA



OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com

OLIDEN arkitek-tura

678 875 652
943 143 093
lor@olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com

Faxadik
Telatutak
Enebitzak
(Zakalduak, barneak)
Industria mantentzeak
Mota guztietako getzerotzi lanak

Enebitzen inguruko teknikak (ITE)
Zerbitzu energetikoak
Fitxaden diseinua eta abakulak
Enebitzen baimen diseinua
Mota guztietako proiektuak



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auztegia, 14 • Arranatz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Jose Mari Kortia Indurtegia, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 66 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Juho Beobide Ibilbidea, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

dan. Lanarekin hobeto moldatzeko moduan nintzen, eta han joan nintzen. Uste baino urte hobea egin genuen.

**Orioren inguruan bada kontu bat, beti bueltaka: be-
raiek diote ez diotela ordaintzen arraunlariei, bertara joan
egiten direla arraunlariak. Hala al da?**

Joan egiten da arraunlaria Oriora, beste inora baino ge-
hiago, eta kobratu gabe ere norabait joatekotan Oriora joan-
go da arraunlaria. Kobratzen duten edo ez, ez naiz sartuko...
Nik dakidala ez zen kobratzen. Nire ondoan ez zuen behin-
tzat inork kobratzen. Hori bai, era asko daude kobratzeko...
Sarietan irabazitakoa klubak biribildu izan zuen, baina hori
beste klubetan ere egiten da.

**Hurrengo urtea izango zen zuretzat mugarrria: 2007an,
Kontxako Bandera irabazi zuen Oriok, eta zu barruan zi-
nen.**

Zerbait ezberdina da Kontxan irabaztea. Orduan sentitu
nuena ez dut orain sentitzen, baina berezia izan zen. Gogoan
dut oso gaizki pasatu nuela igande batetik besterako astea,
tentsio handiarekin, lorik ezin eginda. 11 segundo ateratu geni-
tuen alde lehen igandean, baina oso gutxi iruditzen zitzaidan.
Estropada bukatu, bandera irabazi eta sekulako korapiloa as-
katu nuen barruan. Hain gaizki ez dut sekula pasa. Propio
joan nintzen lanera aste horretan, emazteak eskatu zidalako
opor astea beste tarte baterako lagatzeko. Uste nuen ondo
etorriko zitzaidala lanean egotea, arraunean ez pentsatzeko,
baina okerrago izan zen: lankide asko galdezka izaten nituen
uneoro, Kontxa gora eta Kontxa behera. Neure onetik aterata
ibili nintzen.

**Aizperro azaldu da behin baino gehiagotan solasal-
dian. Agerikoa da zuretzat esanahi handiko pertsona izan
dela arraun munduan. Zer eman dizu?**

Garbi daukat ez bazidan Urdaibairako deitu, ez nuela
beste aukerarik edukiko Zumaiatik kanpo, nire arraun bizi-
tzan izan dudana pertsonaia garrantzitsuena da. Gainera, egin
duen ibilbidea eginda ere, ez da aldatu pertsona bezala, lehen
bezala jarraitzen du.

**2008an utzita egon eta gero, 2009rako Castrok fitxatu
zintuen. Berriz ere kilometro pila bat egitera...**

Juan Mari Etxabe eta Joseba Fernandez ziren entrenatzaileak
orduan. 2008an utzita egon nintzen alaba zaharrena jaio
zelako, eta urte hartako udazken hasieran deitu zidan Etxabe-
k. Zakila Birako eguna zen, eta proba egin behar nuen. Au-
toa kiroldegi aurrean utzi, eta orduantxe deia. Taldea indartu
nahi zuela eta niri deitu. Oso urduri jarri nintzen, eta Zakila
Biran oso gaizki pasatu nuen, burua Castrok deian neukan,
eta ia-ia bukatu ere ez nuen egin lasterketa. Tentsio bete-
an aritu nintzen lasterka.

Bi urte egin zenituen Castron...

Castroko aukera eta lana uztartzea ez zen erraza. Asmoa
nuen lantegian lanaldi murrizketa eskatzeko, umearekin eta
egoteko. Eskatu nien, eta beraiek zer proposatuko eta lana uz-
tea aldi baterako, eszedentzia. Onartu egin nuen, eta bi urtez
egon nintzen horrela.

**Arraunerako bizi izan zinen bi urtez. Zer moduzko
esperientzia?**

Arraunerako eta umearekin egoteko. Zoragarria izan zen.
Umearekin denbora asko egoteko aukera izan nuen, etxeko
lanak egiten nituen...

**Eta emaitza aldetik ere bikaina izan zen aurreneko
urte hura Castron.**

San Miguel ligan hamazazpi banderatik hamahiru irabazi
genituen.

**Baina gero Kontxan, kale, faborito ia bakarrak izanda.
Zer gertatu zen?**

Beste batek irabazi zigula. Guk gure maila eman genuen,
baina... Beste batek minutu bateko hobekuntza egin zuen
Kontxarako. Lehen igandean geuk galdu genuen, bueltako
luzean norabide okerra hartu genuelako, eta Kaikuk bost
segundo ateratu zizkigun. Bigarren igandean, txikitza ateratu
ginen, eta lehertu egin ginen; hoge segundo ateratu zizkigun
Kaikuk.

**Castroren arazo ekonomikoek eragin zizuten zuzen-
ean?**

Bai. Bigarren urtean agindu zidatenaren erdia baino ge-
hiago kobratzeko daukat oraindik, eta, gainera, itxaropen
gutxi edo batere ez kobratzeko. Lehen urtea osorik kobratu
nuen, aldiz.

**Halako egoera baten aurrean zerbait egitea pentsatu
zenuten arraunlariek?**

Gure artean aipatu ziren protesta egiteko aukera batzuk,
baina ez ziren gauzatu. Gu kirolariak gara, eta lehiatzea da
gure lana. Berdin-berdin egin behar izaten da lana, eta au-
rerra.

**Zure arraun ibilbideko unerik txarrena izan da Cas-
troko arazo ekonomikoarena?**

Txarrena ez dakit izan den. Une txar bat izan da, beste-
rik ez. Hainbeste une izan ditut txarrak eta onak... Castron
oso giro ona izan genuen; okertu, 2010eko amaieran okertu
zen, Kontxarako sailkatu ez ginenean. Diru kontuek ez zu-
ten eragin giro txarrik. Ez zen atsegina kobratu gabe ibiltzea,
baina hori baino gehiago ez. Azkenean, gauza guztiak hartu
behar dira kontuan balorazioa egiteko, eta Castron, esate-
rako, zaleen jarrera zoragarria izan zen. Emaitza onak izan



Zergatik hasi zinen arraunean?

10-11 urterekin hasiko nintzen. Arraun Elkarte Amaiako plazan zegoen orduan, eta gu goiko etxean bizi ginean, Klubaren gainean. Egunero ikusten genituen arraunlariak han bertan, trainerua nola ateratzen zuten, nola jasotzen, nola garbitzen... Anaia hasi zen lehendabizi, eta ni atzetik. Klubaren barrura ere sartzen ginen erdi ezkutuan, hautsita zeuden leiho antzeko batzuetatik... Ume irteerak! Hasiera batean jolasa zen niretzat. Pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago sartzen hasi ginen, eta gaur arte.

Arraunlariei entzuna da hau: “Behin hasiz gero arraunean, zaila izaten da uztea”. Zer dauka, bada, arraunak?

Beste kirol gehienetan bezala, lagun giroa sortzen da. Norbere koadrilarekin baino denbora gehiago pasatzen dugu arrauneko taldekideekin, eta gozatu egiten da taldean kirola egiten. Gero, oso kirol polita da, zuk eragindako indarrarekin mugitzen delako ontzi bat. Zenbat eta egokiago eragin, azkarrago joaten da ontzia. Sentitu egiten duzu nola doan, eta behin hori lortuta, oso sentazio polita da.

Patroi bezala hasi zinen umetan, eta horregatik ere izango duzu trebezia berezia ontzia sentitzeko?

Baliteke. Kakanarrua nintzen, eta patroitzan hasi behar. Aurreneko hiru urteetan aritu nintzen patroi, eta heldua-goekin jokatzeko nituen estropadak. Eta igande goizetan baita seniorrekin ere, norbait falta zenean. Ohetik jaikiarazten ninduten, eta ez pentsa grazia handirik egiten zidanik...

Arrauna ikargarri aldatu da denbora gutxian. Zertan gehien?

Materiala aldatu da asko. Egurrezko traineru haiek ez dira ikusten orain. Amilibia ontzigileak atera zuenean fibrazkoa, gauza asko aldatu ziren. Egurrezkoaren aldean, gehiago eta beste era batera ibiltzeko aukera ematen zuen. Adibidez, egurrezkoa askoz hobeto zaindu beharra zegoen. Gogoan dut egurrezko traineru bat, eta berria zen; bada, bere bigarren urtean ur handitu egin behar izan genuen uretara joan aurretik, uretan ura har ez zezan. Beste mundu bat zen hura. Hedabideen aldetik ere beste segimendu bat egiten zaio arraunari; telebista dago sartuta, esaterako. Ligak ere hor daude... Gauza asko aldatu dira. Aldatu ez dena da betiko jendea dabilela laguntzen arraun elkartean.

Zer balio emango zenioke osasunaren arloan arraunak izan duen bilakaerari?

Lehen, garai batean, familia-medikuak ibiltzen ziren klubetan. Orain ez. Orain, kiroletan adituak diren medikuak dabilta, horretarako mediku taldeak sortu dira, enpresak eta sortu dituzte, lehiatzen erakusteko. Aldaketa onerako izan da. Nik duela hamar-hamabost urte askoz gehiago sufritzen nuen gerrietatik; lehen, masajea bakarrik jasotzen genuen, eta orain, ikasi egin dut neure burua erabiltzen, minek eta gutxiago erasateko.

Nondik nora ikusten duzu arraunaren geroa?

Ez da denbora asko esan zela etorkizun handirik ez zeukala; TKE ligaz esandakoak dira horiek. Baina hor jarraitzen du. Arraun elkarteei dagokienez, gauzak ondo egin behar izango dituzte aurrera segitzeko. Diruari dagokionez, bukatzen joango dela ematen du.

Dirua eskaintzeari uzten bazaio, buruko min gutxiago klub txikiengatxat etxeko arraunlariei eusteko?

Normala da klubek etxeko arraunlariei eutsi nahi izatea, baina normala da, baita ere, arraunlariek kanpora atera nahi izatea. Jendea asko kezkatzen da dirua mugitzen duten klub horien filosofiagatik, baina gero, harrobia lantzen duten klub horiek nahi zutelako, dirua eskatzen dute arraunlari baten truke, TKEko araudiak hala zehazten duelako. Ezagutzen ditut arraunlariak bere patrikatik ordaindu dutenak klub batetik bestera joateko jarri behar den dirua. Arau hori beste era batera egingo nuke nik. Ezin zaio ukatu arraunlari bati kanpora joaten uztea, nahiz eta

normaltzat hartzen dudan klub bakoitzak bere baloreak defendatzea. Baina uste dut klub batzuk besteen interesen kontra egiten dutela norbere interesen alde baino gehiago.

Jende askok esaten du hau: “Arrauna da kirol bakarra lehiatzen baino entrenatzen denbora gehiago ematen dena”.

Portugaleteko aurreneko urtean, Espanyol futbol taldean ibili zen prestatzaile fisikoa izan genuen aurreneko hilabeteeetan, eta hura gustura zegoen prestakuntza hain luzea delako. “Zuekin mirariak egin daitezke, hainbesteko prestakuntzarekin”, esaten zigun. Hala ere, neguko traineru jaitsierekin aldatu egin da gauza. Lehen, entrenamendu onak egiteko testak izaten ziren, baina orain, ia topera joaten gara jaitsieretara. Lehen, otsailaren erdialdean izaten zen aurrenekoa, eta orain, abendu amaieran izaten dira.

Arindu egiten dute prestakuntza?

Alde batera bai, baina emaitzaren bila joaten gara orain, eta horrek berak estutu egiten ditu gauzak.



“Normala da klubek etxeko arraunlariei eutsi nahi izatea, baina, baita ere, arraunlariek kanpora atera nahi izatea”



ZUMAIAKO URTEAK

Zumaian hasi zen arraunean lurgi Iruretagoiena. 1994an egin zuen debuta lehen traineruan, eta 2002an utzi zuen taldea, Aizperrok Urdaibaira joateko deitu zuenean. Handik aurrera ere, talde onenetan egin du beti arraunean.

edo ez izan, Castroko zaleak eguneroko etortzen ziren entrenamenduaren hasiera ikustera; jendetza pilotzen zen trainerua uretarazteko unean. Eta entrenamendua bukatu ondoren, zenbait egunetan zale batzuek gonbidatu egiten gintuzten beren elkarteetara, eta afaria ematen ziguten. Zaleen borondatea ez sinesteko modukoa izan zen. Ezagutzen ditut familiak klubaren alde dena eman dutenak.

Castrokoa amaitu eta gero, zein azalduko berriz zure parera eta Aizperro. Portugaletera joatea nola gauzatu zen?

Deitu egin zidan, eta esan zigun lau urterako egitasmoa zela, eta lau urterako sinatu behar genuela. Aurrenetakoa izan ginen Portugaleteko presidentearen bulegora joaten, eskaintza entzun genion, eta azkenean, taldea osatu genuen.

Zer moduzko urteak izan dira lau hauek?

Besteetatik oso ezberdinak. Onena aurrenekoa izan zen, 2011koa. Klubaren egoera ez zen egokiena, zerotik hasi behar izan genuen, eta egiten genuen dena onerako zen. Asmoa zen pixkanaka joatea, hobetzen joatea, eta aurreneko urtean KAE 1etik San Miguel ligara igo ginen. Bandera asko irabazi genituen, eta pozik.

Nolakoa izan zen San Miguel ligako lehen urtean Portugaleterentzat?

Mailari eustea zen helburua. Etxeko jendeak uste zuen erraz ibiliko ginela, baina esaten genien San Miguel ligan zartakoak hartzea oso erraza dela. Hala ere, hobetzen joan ginen urte hartan, eta hirugarrenean ere hobetuz joan ginen.

Hirugarrenen urtean lortu zenuten lau urte hauetakoa emaitza onena: Kontxako Banderan sartzea eta sailkatze estropada irabazita, gainera.

Bai, ez genuen asko uste halako zerbait lortuko genuenik.

“Hasitako tokian bukatuta nago: Zumaiako zikloa amaitutzat ematen dut”

Urte hartan, Ligan, arazoa izan genuen arraunlari propio gutxi genituelako; aldiz, txapelketetan eta Kontxan ez genuen arazo hori, eta beste talde bat ateratzeko aukera izateak on egin zigun.

Azkeneko urte hau, berriz, zeharo okerra atera zaizue. Zergatik?

Bai, erabat. Dezepzio handia izan da. Neguan oso ondo aritu ginen, baina Mutrikuko estropada baino lehen, ekaina aldera, aldrebestu egin ginen. Oso estropada txarra egin genuen, eta ez gara gai izan buelta emateko gero. Konfiantza galduz joan ginen pixkanaka, eta ez dugu lortu txalupa behar bezala joatea. Gaizki hasi ginen Ligan, eta ez dugu asmatu egoera bideratzen. Buruak lan gehiegi egin digu, eta uste dut ez dudala aurten adina inoiz sufritu; etsigarria izan da.

Bukatu al da Iurgi arraunlaria?

Ez dakit. Orain ez daukat ezertarako gogorik. Kirola egiten segituko dut, eta baliteke alabaren bat arraunean hasiz gero berriz ere hor sartzea, edota veteranoekin hastea. Gainera, 40 urte beteko ditut hurrengo urtean, eta zaila da talde indartsu batek niri deitzea; 20 urteko bati azkarrago deituko diote. Oraingoz ez daukat arraunean segitzeko asmorik, baina ikusi egin behar...

Ez litzaizuke gustatuko zure arraunlari ibilbidea Zumaian amaitzea?

Hasitako tokian bukatuta nago: Zumaiako zikloa amaitutzat ematen dut. Beti galdetu izan didate zergatik ez dudan Zumaian bukatzen, horretara behartua banengo bezala, eta nik esaten dut: zergatik bukatu behar dut Zumaian? Hemen egin beharrekoak eginda dauzkadala iruditzen zait. Horrek ez du esan nahi Zumaiak ez didanik ezer esaten; ezta gutxiago ere! Sentimendu handiak dauzkat Zumaiarekiko, nire kluba delako, azken batean. ■

Primavera pizzeria

943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

Egin zaitetz **BALEIKEKO** bazkide

BALEIKE
GERRAKO BOST
DESAGERTU
AL RITTU DITUZTE

Egin zaitetz **BALEIKEKO** bazkide

BALEIKE
GERRAKO BOST
DESAGERTU
AL RITTU DITUZTE

talaja
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

TALAI-PE
jateketa-erretoria

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Trapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA

Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukandook (hodilloak)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardook dukeran

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

UPELA PARABOTIKA
BELARDENDA

- ✓ Sendagai naturalak
- ✓ Osteopatia eta masajeak
- ✓ Naturista, dietetika eta elikadura

Upela plaza 9
943 537 911
upelabelardenda@hotmail.com

Zalla

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZATOZTE

zatozte.bakailaudenda@gmail.com
Juan Beltruria 4 beheko 20750 Zumaia
TF 943861383

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@euskalnet.net

BASADI 13
20750 ZUMAIA
Tel. 943861018 / Fax. 943018173

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Alai suztegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

ESKERRIK ASKO
—
25 URTE ZUEKIN

%25
DESKONTUAK

25 urtez gure ondoan zaudelako.

EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

Txomin Agirre 6, 20750
T 943 143 057
www.eduoptika.com

ANITZAK GARA

horrek aberasten gaitu

SOMOS DIVERS@S
esto nos enriquece

SUNTEM DIFERITI
aceasta ne face mai bogăți

SOMOS DIVERS@S
isso enriquece-nos

نحن مختلفون
هذا يغنيننا



antolatzailea:



Zumalako Udala

babeslea:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputazio Nagusia
Ingenio eta Ardatzaren
Zarabertze Nagusia

Zumaiarrok 53 herri ezberdinetan baino gehiagotan dugu jatorria eta anitzasun horrek aberasten gaitu. Anitzasuna eragileekin lantzeko saio irekiak:

Urriaren 8an: hezkuntza, kirola eta aisialdiko eragileak

Urriaren 14an: gizarte gaietako eragileak

Urriaren 15ean: kultur eta identitate elkarteak

Urriaren 31n: Anitzen batzarra, Alondegiko plazan

18:00etan Alondegia Kultur Etxeko MOILA gelan izango dira saio guztiak.

I. Garagardo Zumaiako Festa

urriak 10, 11, 12

ANIMAZIOA
PINTXO BEREZIAK
GARAGARDO
DASTAKETAK

MUSIKA TABERNAZ TABERNA
MAC JEARA 'S BAND TALDEAREKIN

PARTE HARTZAILEAK:

GURE TXOKOA, ITZURUN, KALARI, KRESALA, BASUSTA, TRAPAIA, ZALLA, TXIMISTA, IDOIA, ZELAI



zumartian



Zumaiako Udala

URRIA-AZAROA

DEIALDIAK

Urriak 10-12

Garagardo Festa Zumartianeko tabernetan

Urriak 17-19

Asteburu mikologikoa

Azaroak 26-30

XIII. Klarinete Maratoia.

Kontzertuak egunerok.

ERAKUSKETAK

Urriak 12 arte

FRANCISCO HERNÁNDEZ

Urriak 22-Azaroak 9

DISTIRA Argazki Elkarte

Azaroak 13-30

ANTON EGIUREN

URRIA

10, ostirala

19:30 Forondan, Gune elkartearen meditatizio saioa.

12, igandea

08:00 Kostaldeko Baleadak: ibilaldi kultural eta gastronomikoa.

09:00 LXI. Elkarte arteko arrantza lehiaketa.

12:00 + 16:30 Aita Marin haur antzerkia, "Hiru txerrixtoak" Glu Glu taldearen eskutik.

14, asteartea

18:00 Alondegian, Anitzen sarea: gizarte arloko gogoeta saioa.

15, asteazkena

10:00-14:00 eta 16:00-20:00 Oxford aretoan Gure historiaren pasarteak, Ander Gillenearen argazki erakusketa.

18:00 Alondegian, Anitzen sarea: kultur elkarteekin gogoeta saioa.

16, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum: "La gran belleza".

17, ostirala

20:00 Oxford aretoan, Kafe musikala The Calcein Band taldearekin.

19, igandea

09:00 Eskolarteko XXVII. Mendi lehiaketa.

21, asteartea

17:30 Haur liburutegian ipuin kontaketa: "Aniztasuna, bizipoza".

24, ostirala

19:30 Forondan Gune taldearen solasaldia: Elena Andrésen "La Educación de la Interioridad: devolver el Ser al centro de la Educación".

30, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum: "Her".

31, ostirala

18:00 Kofradian Anitzen batzarra-world kafea (eguraldi txarrarekin, Oxforden).

AZAROA

1, larunbata

11:00 Algorriko doako ekintzak: Hegaztientzat jantokiak sortzeko tailerra.

2, igandea

19:00 Parrokian, kontzertua Tolosako nazioarteko abesbatzen 46. lehiaketaren barne: Rigako Maska abesbatza gaztea.

7, ostirala

18:00 Alondegian, Errioxako ardo eta olioaren dastaketa.

22:00 Aita Marin antzerkia, Bada Teatroaren "Traganarru".

13, osteguna

22:00 Aita Marin, zine forum: "Joven y bonita"

16, igandea

12:00 Oxford aretoan txotxongiloak, "Inaugurazioa" Gus marionetas taldearen eskutik

19, asteazkena

18:00 Musika Eskolaren Xixili eguneko entzunaldia

20, osteguna

18:00 Musika Eskolaren Xixili eguneko jaialdia

21, osteguna

22:00 "160 metro" proiektzioa

22, larunbata, Xixili eguna

17:30 Maria eta Jose aretoan Udal Musika Bandaren kontzertua: "Gulliverren Bidaia".

23, igandea

11:00 Parrokian Meza Nagusia Beheko Plaza abesbatzak bere zaindari Xixiliren ohorez

27, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum: "Ida".

28, ostirala

19:30 Forondan Gune taldearen saioa NEREA ALZOLA: "Adimen espirituala irakasleen prestakuntzan".



Etxez etxeko zerbitzua

Santiago duzua, 18 TEL: 943 862611

Maddi GALLASTEGI



Libre

Doinua: "Ligoi bizitza ez da izaten."

1.

Ez genituzke Audientziako paretak expraiatuko, ez genituzke zoruak eta zuloak profanatuko, ez genituzke lorategiak Moncloan ureztatuko, 'Cara al Sol' kantatuko, militarrik maitatuko. Aske ezina ukatuz aske, libre nahi dugu ta punto! Eta nahi hori gauzatzeari ez diot egin nahi uko.

2.

Estatuaren boteregune indartsuenen murrizketak, zelda iluna arnasbide ta itomenerako poltsak, estu ta larri doa burua, ezta hitzik, estu hortzak: gorrotoaren ahotsak, baldosa gris bezain hotzak, zabaltzen ditu zauriak eta uzkuratzen ditu bihotzak, eta halere ze duin diren torturatuen aitortzak.

3.

Militante naiz, borrokatzen dut nire, gure askapena, sala arrotzek eman dezaten merezitako kondena, Sotora edo Aranjuezera bidera gaitzakeena. Zer da benetan hor dena? legeak eta ordena, herri batek du desobeditzen herri baten ukapena, bide hortatik sor dezakegu sortu nahi genukeen dena.

4.

Zenbat lotura ta korapilo Loiolan edo Bulean, haustura bati lotzeko asmoz konponbide bat aurrean, margo laranja begiak erre eta birrikak puztean, askeak ginen unean, kalean, Askegunean, heldu eskutik elkarri eta segi dezagun lanean, bandera trapu izan ez dadin ekaitzaldien ostean.






Kalitatezko
produktuak

Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA

Juanjo Larrañaga harategia



**BAZKIDEENTZAT
10 EUROTIK GORAKO
EROSKETEKIN
ETA BEHEKO
TXARTELAREKIN
(MOZTUTA EKARRI)
ARDO BOTILA OPARI**

ZUMAIA
Basadi auzategia, 4. Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ
Salegi kalea, 14. Tel./Faxa: 943 890 215

✂
ARDO
BOTILA
OPARI



Cambridge English

Exam Preparation Centre



Maria eta Jose
IKASTETXEA



Ez duzu autobusa gehiago hartu beharrik izango

CAMBRIDGE AZTERKETAK MARIA ETA JOSE IKASTETXEAN

Informazio guztia www.mariatajose.com webgunean